



Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak Master Amaierako proiektuentzat bi beka

BEKA DEIALDIAREN OINARRIAK

Helburua

Eusko Ikaskuntzak 2017-2018 ikasturterako bi beka aurreikusi ditu Master Amaierako proiektuentzat.

Beka deialdi honek bere baitan biltzen ditu 2017ko martxoaren 31an Gasteizen izandako 'Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak' mintegian hartutako konpromezua.

Deialdi honek diziplinarteko lana bultzatu nahi du; aurkeztu behar diren eskaerak Master Ofizial batean txertatua egoteaz gain, bi edo disziplina gehiagoren eta Eusko Ikaskuntzaren zuzendarikidetzat izango du.

Gaiak

Master Amaierako proiektuak honako gai bat landu beharko dute:

- › Gazteen harreman SAREAK euskararen sozializazioan.
- › Euskararen erabilerearen aldeko MOTIBAZIOAK gazteengan.

Bekaren ezaugarriak

Onuradunak

- › 2017-2018 ikasturteko Unibertsitateko Master Ofizialeko ikasleak.
- › 2017-2018 ikasturterako bekaren zenbatekoa 6.000 eurokoa izango da.
- › Bi edo disziplina gehiagoren zuzendarikidetzat duten lanak lehenetsiko dira.

Bekaren ordainketa bi alditan ezarriko da:

- › Beka deialdi honetako ebazpenen ondoren, lan bakoitzeko 2.000 euroko ordainketa egingo zaio.
- › Proiektua amaituta eta onespina jaso ondoren, lan bakoitzeko 4.000 euroko ordainketa egingo zaio.

Beka esleitzeko irizpideak eta baldintzak

Esleipen irizpideak

- › Ebaluazio talde bat eratuko da, gaiaren arabera Aholkulari Zientifikoekin eta Eusko Ikaskuntzako ordezkariarekin.
- › Eusko Ikaskuntzak baloratuko ditu deialdi honetako oinarrietan ageri diren eskakizunak betetzen dituzten eskatzaileak.
- › Ebaluazio taldeak baloratuko ditu aurkeztutako beka-eskaerak: prestakuntza akademikoa, curriculum, motibazio gutuna eta proposatutako proiektua.
- › Eskaerak aztertutakoan, jasotako puntuazioaren arabera zerrenda batean antolatuko dira, altuenetik baxuenera. Ondoren, eskatzaileekin elkarrizketak egingo dira, erabakia hartzeko behar duen informazioa zabaltzeko xedez.

Baldintzak

- › Ebaluazio taldeari aurkeztutako proiektuak egoki iritziko ez balie, diru laguntza (edo horietakoren bat) ez ematea proposa lezake.
- › Proiektuaren arabera eginiko lana 2018ko irailaren 15a baino lehen entregatu beharko da.

Eskaerak eta eskaeren formalizazioa

Eskaerak aurkezteko epea: 2017ko urriak 15

Eskaera formalizatzeko aurkeztu beharreko dokumentuak

1. Deialdi honekin batera doan eskaera-inprimakia.
2. Eskatzailearen NANaren fotokopia.



3. Eskatzailearen CV laburra.
4. Master Ofizialean matrikulatu izanaren egiaztagiria eta programa.
5. Lanaren gidalerroak (1.500-5.000 hitz): aukeratutako gaia, proiektuaren helburu orokorrak eta zehaztak, esparru teorikoa, aurrekariak eta metodologia, kronograma.
6. Master Amaierako proiektuaren zuzendari eta zuzendarikidearen berme-txostena.
7. Motibazio gutuna.

Baldin eta oinarri hauetan eskatzen diren puntuetako bat betetzen ez duen eskaera edo dokumenturik bidaltzen ez bada, eskatzaileari 3 egun natural emango zaizkio akatsak zuzentzeko edota eskatutako dokumentuak aurkezteko, jakinaraziz horrela egin ezean eskaera ez dela aintzat hartuko.

Eskaera-inprimakia eta gainontzeko dokumentazioa Eusko Ikaskuntzaren edozein bulegoetan aurkeztu beharko dira edo posta-elektronikoz bidali.



2017-2018ko BEKA DEIALDIA **Eskaera-inprimakia**

EREMU TEMATIKOA: Euskararen Etorkizuna

AUKERATUTAKO GAIA

Gazteen harreman SAREAK euskararen sozializazioan

Euskararen erabileraren aldeko MOTIBAZIOAK gazteengan

NORBERAREN DATUAK

NAN

Lehen deitura

Bigarren deitura

Izena

Jaiotze data

Helbidea (kalea, zk., solairua)

Herria

PK

Telefonoa

Helbide elektronikoa

DATUAKADEMIKOAK

Titulazioa

Master Ofizialaren izena

Hasiera data

Unibertsitatea

Saila

Master Amaierako Proiektuaren izenburua

Zuzendari eta zuzendarikidearen izen-deiturak eta helbide elektronikoa

AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA

Eskatzailearen NANaren fotokopia

Eskatzailearen CV laburra

Master Ofizialean matrikulatu izanaren egiaztagiria eta programa

Lanaren gidalerroak

Master Amaierako Proiektuaren Zuzendari eta zuzendarikidearen berme-txostena

Motibazio gutuna

Lekua eta data

Sinadura